

Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

Ekintza

# ZER OPARITZEN DIGUTE ZUHAITZEK?

**Z**uhaitzak aberastasun-iturri dira eta izan dira gizakientzat. Zura, adibidez, egun hotzetan berotzeko erabili izan dugu, baita altzariak eta tresnak egiteko ere. Zuhaitzei esker, papera egiten dugu, haien fruituekin elikatzen gara, hosto usainsuak oparitzen dizkigute eta abar. Gainera, aterpea eskaintzen digute atseden hartzeko, itzala eguzkitik babesteko eta gunea bildu eta historiak kontatzeko.

Zuhaitzen opari horiek guztiak doakoak direla iruditzen zaigu, baina jakin behar dugu, ondo zaintzen eta babesten ez baditugu, ondorioak konponezinak izan daitezkeela: gaixotu eta, txarragoa dena, desagertu ere egin daitezke. Zuhaitzak desagertuko balira, basoak, horietan bizi diren animaliak, landareak... desagertuko lirarteke, baita gure zati bat ere.

## HELBURUA

Gure ingurune hurbileko (patioko, lorategiko, parkeko eta abarreko) zuhaitzak begiratu eta ezagutzea, baita horietaz hitz egitea eta ikerketa errazak gauzatzea ere, zuhaitzak zaintzeko, errespetatzeko eta kontserbatzeko jokaera arduratsuak garatze aldera.

## LANDUTAKO KOMPETENTZIAK

- Zientzia-, teknologia- eta osasun- kultura
- Matematika.
- Hizkuntza-komunikazioa.
- Giza eta arte-kultura.

## GARAPENA

Oraingo honetan, Bilboko Arte Ederren Museoko Hezkuntza Sailaren azken ikasmaterialetan oinarritutako jarduera bat egitea proposatzen dizuegu: "Ezohiko ibilbideak". Susana Talayero artistak eta Claudia Maldonado basogintzako ingeniariak diseinatu eta gauzatu.

Lehen fasean, gure proposamen pedagogikoa herriko parke esanguratsu batean, hiri-baso artifizial batean, paseatzea da. Izan ere, gune horrek honako aukera hauek eskaintzen dizkigu:

- Urteko edozein sasoiaren, aire zabalean ikasteko aukera izango dugu, nahiz hotz edo bero egin, euria ari edo haizea egin.
  - Zentzumen guztiak erabiliko ditugu: usainak, formak, koloreak, testurak, tenperaturak, sentsazioak eta abar.
  - Parkeko zuhaitzen ezaugarriak behatuko ditugu: morfologia (sustraiak, enborrak, azala, adarrak, hostoak, loreak, haziak, fruituak...), altuera, testurak, jatorriak, desagertzeko zorian dauden espezieak eta abar.
  - Zuhaitzen altuera eta adina kalkulatzeko teknikak ezagutuko ditugu.
  - Zuhaitzetan bizi diren animaliak (erraz ikus daitezkeenak, txiki-txikiak...), onddoak eta likenak bilatuko ditugu.
  - Zuhaitzek egiten dizkiguten opariez hitz egingo dugu, haien onuren zerrenda egingo dugu eta guztion artean konpromisoren bat hartuko dugu zuhaitzak zaintzeko.
- Bigarren fasean, inguruko museoren batera joango gara. Bertako aretoetan ibiliz eta erakusgai jarritako koadroak begiratu, zuhaitzek artista batzuen obretan izan duten garrantziaz ohartuko gara. Eta ikustea pentsatzea denez, ikasleek koadroak begiratu eta obrekin "hizketan" hasteko unea izango da. Haurrek obrei buruz hitz egin dezaten ahaleginduko gara: irudiek esaten dietena adierazten, iradokitzen dietena azaltzen, zer edo nor ekartzen dieten gogora, zerk ematen dien arreta eta abar. Ikusten ari garen koadroei buruz galderak asmatzeko astia emango diegu.

Amaitzeko, ikasgelara itzulita, Bilboko Arte Ederren Museoko Hezkuntza Sailaren ikasmaterialetan eskuragarri dagoen proposamen plastikoren bat egingo dugu:

**OSO MUNSTRO NATURALAK ADARRETATIK JOANGO GARA HAIZE-ARROSA**  
Material guztiak Museoaren webgunean daude eskuragarri.  
[www.museobilbao.com](http://www.museobilbao.com)

Gure haurrei baso, parke edo lorategi batean ikasteko aukera ematen diegunean, hurbileko zuhaitzak maitatzera eta errespetatzera gonbidatzen ditugu eta etxe handi honetan, Lurrean, bizi diren izaki guztiak harmonian bizitzen irakasten diegu.

Erreferentziak:

- Arte Ederren Museoko Hezkuntza eta Kultur Ekintza Sailaren (HKES) ikasmateria.
- Ezohiko ibilbideak, Claudia Maldonado, Susana Talayero.
- «Basoa» lan-proiektua (0-6 urte), Mariona Espinet.

